




Giza Eskubideen VIII. Zinemaldia



Hizkuntza erabileraren neurketa

Donostiako Euskaltzaileen Elkartea

Katalina Eleizegi kalea, 36-behea. 20009 Donostia
Tel: 943467181- Fax: 943446532- e-mail: bagera@bagera.net

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. METODOLOGIA	4
3. AHOZKO ERABILERA	5
3.1. Filmak	5
3.2. Ekitaldien ongi etorri eta aurkezpenak	5
3.4. Aurkezpen prentsaurrekoak	5
3.5. Prentsaurrekoak	6
3.6. Jendaurreko zerbitzuak	6
4. IDATZIZKO MATERIALA	7
4.1. Katalogo ofiziala	7
4.2. Programazio liburuxka	7
4.5. Eskuorriak, sarrerak,	7
4.6. WEB gunea	8
4.7. Prentsarako materiala	8
4.8. Errotulazioa	9
5. ERAKUSKETA	9
6. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK	10

1. SARRERA

BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkartek, euskararen erabilera areagotzea ardatz duela, Donostiako aisialdian eragina duten ekintza nagusietan hizkuntza erabileraren neurketa egin ohi du: Giza Eskubideen Zinemaldia, Aste Nagusia, Jazzaldia, Zinemaldia eta Musika Hamabostaldia. Hau dela eta, aurten lehenengo aldiz, Giza Eskubideen Zinemaldiaren behaketa egin dugu.

Garrantzitsua da oso euskararen erabilera normalizatzea egunerokotasunean. Era berean, gizarteari eskaintzen zaizkion aisialdirako kultur ekitaldietan euskaren presentzia areagotzea oso garrantzitsua da. Ostera ere, gogorarazi behar dugu euskara hizkuntza ofiziala dela Euskal Autonomi Erkidegoan eta, halaber, Donostiako udal ordenantzek euskarari ofizialtasun hau aitortzeaz gain, Udalak antolatutako ekintza guztietan lehentasuna izan behar duela esaten dutela ere.

Beraz, Giza Eskubideen Zinemaldian antolatzen diren jardueratan euskararen erabilera idatzia zein ahozkoa areagotzea du helburu Bagerak; hau da, Giza Eskubideen Zinemaldian euskararen presentzia normalizatzea.

2. METODOLOGIA

Asteak bere gain hartzen dituen momentu guztiak neurtzen saiatu gara: filmen aurkezpenak, euskaraz azpigitulua dutenak edota bikoiztutako film kopurua, programazio aurrerapenaren txostena, filmez filmeko gida, kartelak, e.a. neurtu ditugu.

Neurketa egiterakoan, hizkuntza erabilera 3 atal desberdinetan azaldu dugu eta kasu guztietan bieletan egin zela adierazten dugunean, zehazki, euskaraz eta gazteleraz egin zela esan nahi dugu:

a) Ahozko erabilera: Filmak, ekitaldi nagusiak, prentsaurrekoak, film emanaldietako ongi etorri eta aurkezpenak (ongi etorria, sarrerako lehen hitzak bezala eta aurkezpena pelikulen xehetasunak ematerakoan) eta jendaurreko zerbitzuak aztertzen ditugu atal honetan. Zein hizkuntza erabiltzen den eta bakoitza zein neurritan erabiltzen den hartzen dugu kontuan.

b) Idatzizko materiala: Idatzizko material ugari izaten da Astearen. Antolakuntzaren argitalpenak (filmez filmeko gida, programazioaren aurrerapen txostena, ...), kartelak, web gunea, errotulazioak, e.a. izaten ditugu aztergai.

c) Erakusketak: Atal honetan Astearen baitan antolatzen diren erakusketetan egiten den hizkuntza erabilera neurtzen dugu.

3. AHOZKO ERABILERA

3.1. Filmak

Atal hau Zinema Astearen ekintzarik garrantzitsuena dela gogoan izan behar dugu. Aurten, asteak 27 film luze eman ditu eta, horietatik bakarrak izan du azpigitulua euskaraz eta film bakarra egon da euskaraz. Bestalde, 14 labur eman dira bat bera ere ez euskarazko azpigitulua zuenik ez eta euskarazko film laburrik.

Film guztiak jatorrizko bertsioan eman ziren, gaztelaniaz eta ingelesez azpidatzita, "My neighbor my killer" ezik euskaraz azpidatzita izan zena.

Sailez sail honakoak izan dira aurten eskainitako filmak eta euskarazko emanaldien kopurua:

- Film luzeen sail ofiziala: 22 filmetatik bakarra euskaraz azpidatzita izan zen, eta bakarra ere, euskarazko bertsioan.
- Film laburren sail ofiziala: 14 filmetatik ez zen euskaraz azpidatzitakorik.
- B aldea: 2 filmeetatik bakarra ere ez euskaraz.
- Haur eta gazte saioak: 3 film luzeetatik 2 euskaraz bikoiztuta eta bestea euskaraz azpidatzia izan zen. Film laburrei dagokionez 2 film zeuden bata gaztelarazko bertsio originalean eta bestea gaztelaraz azpidatzita.

3.2. Ekitaldien ongi etorri eta aurkezpenak

Ongi etorri eta aurkezpenak aztertzerakoan, kontuan izan behar dugu ekitaldi batzuk film bat baino gehiagoren emanaldia izan arren (normalean, laburren bat lehenengo eta luze bat edo gehiago ondoren), gehienetan ekitaldi osoak aurkezpen bakarra izan duela.

Bagerak behatutako filmetatik, aurkezpenak bieletan izan dira, lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelaraz.

3.4. Aurkezpen prentsaurrekoa

Aurkezpen nagusian, Denis Itxasok (Kultura zinegotzia), Jose Luis Rebordinosek (Zuzendaria), Odon Elorzak (Alkatea) eta Aitor Imazek (Amnistia Internacional) hartu zuten parte. Denis Itxasok eman zion hasiera prentsaurrekoari eta bieletan egin zuen (aurrena euskaraz eta ondoren gaztelaraz). Imazek eta Rebordinosek gaztelera

hutsez aritu ziren, Odon Elorza Alkateak bi hizkuntzetan egiten saiatu bazen ere, gehien bat gazteleraz egin zuen.

3.5. Prentsaurrekoak

Atal honetan Zinema Asteko ekintzak aurkezteko egin diren prentsaurreko guztiak hartu ditugu kontuan, bai filmei buruzkoak, komiki jardunaldiei buruzkoak edota balorazioarenak ere. Aurten balorazio prentsaurrekorik ez da izan. Prentsa ohar bat bidali zuten posta elektronikoz.

Asteazken zehar egindako prentsaurrekoetan astearen arduradun batek ematen zion hasiera prentsaurrekoari (gehiengoetan Rebordinosek), nahiko labur, eta hizkuntz erabilera prentsaurrekoan parte hartu behar zuen pertsonaren baitan egon da, gehienetan gazteleraz izan da, euskara hasierako agurrean erabili izan da normalean. Ondoren gonbidatuaren baitan izan da erabilitako hizkuntza, orokorrean gazteleraz egin dute, eta atzerriko hizkuntza erabili dutenean itzulpena gaztelerara egin da. Egindako galderak beti gazteleraz izan dira eta erantzunak gazteleraz edota atzerriko hizkuntzan egin dira (itzulpena gazteleraz). 80 egunean filmean izan ezik, bi galdera euskaraz egin ziren baina hala ere prentsaurrekoan gaztelera gailendu zen nabarmen. Zuzendariek zein aktoreek bietan egin bazuten ere, galderen tarte zabalduraz zenean galdera gehienak gazteleraz izan ziren (7 gazteleraz, 2 euskaraz) eta horren ondorioz erantzunak gazteleraz bakarrik izan ziren. Euskarazko galderei dagokionez, galdera bat euskaraz erantzun bazuten ere, beste erantzuna bietan eman zuten.

3.6. Jendaurreko zerbitzuak

Jendeari erantzuteko zerbitzuetan nolako harrera jaso ahal izan dugun neurtu nahi izan dugu.

Hainbat ekitalditan zeuden laguntzaileekin euskaraz egin ahal izan dugu.

Telefonoz deitu izan dugunean, lehen hitza gazteleraz izan da eta nahiz eta guk euskaraz egin izan ahal dugun erantzuna gazteleraz jaso dugu.

4. IDATZIZKO MATERIALA

Oro har Zinemaldiko antolakuntzari dagokion idatzizko materiala bi eletan edota hiru eletan idatzirik dago.

4.1. Katalogo ofiziala

“Giza Eskubideen VIII. Zinemaldia”-ren katalogoan, astean zehar izango diren film eta bestelako ekintzei buruzko informazioa azaltzen da 110 orrialdetan. Lehenik, filma baten kartela azaltzen da (Honeymoons) fitxa teknikoa eta oharrak gaztelera hutsean, jarraian Odon Elorza alkatearen agurra irakur dezakegu hiru eletan. Ondoren, filmei buruzko informazioa hiru eletan dago eta izenburua jatorrizko hizkuntzan ageri da, alboan datorren fitxa teknikoa euskaraz dagoelarik. Aipatu behar dugu, haur eta gazte saioetan 5 filmetatik bakarrak duela izenburua euskaraz (beste 4ak gazteleraz daude). Gainontzeko ekintzei buruzko informazioa hiru eletan dago. Informazioaz gain, hainbat iragarki edo filmen kartelak daude. Hemeretzi filmen kartel daude, 2 filmen iragarki euskaraz, 10 gazteleraz, 7 ingelesez, . Honetaz gain, 3 iragarle badira, bat euskaraz (Bitez logoak) eta beste biak gazteleraz (Donostia 2016 eta Radio Euskadi).

Oro har hiru eletan badago ere, euskarazko bertsioan akatsak daude eta honetaz gain gaztelerazko itzulpen literarioa dela antzematen da, are gehiago, euskarazko esaldi asko ulertzeko gaztelerazko bertsioa irakurri behar izan dugu.

4.2. Programazio liburuxka

40 orriko liburuxka bat da. Azalean kartel ofiziala du, hiru eletan. Kontrazalean, berriz, antolatzaileen, babesleen, parte-hartzaileen eta laguntzaileen logotipoak daude. Barnean, filma bakoitzaren azalpen labur bat dago, bi eletan, euskarak lehentasuna badu ere, katalogo ofizialean bezala, euskarazko testuak gazteleraren itzulpen literalak dira eta honen ondorioz, lehen aipatu bezala esaldi asko ez dira ulertzen eta honetaz gain akatsak daude euskarazko testuetan. Bestetik, erakusketen atalari dagokionez, erakusketaren lekuaren izena, 2 kasuetan gazteleraz daude soilik (Plaza Okendo eta Cines Principe).

4.5. Esku orriak, sarrerak, ...

Atal honetan Zinema Astearen inguruan sortzen den beste material idatzia biltzen dugu, kontuan izanik hau dela jende gehienarengana iristen den materiala.

Emanaldietarako eskuratu ditugun sarrerak bieletan egon dira, baita haurrentzako filmetako eta hasiera eta amaierako festen gonbidapenak ere.

Eskuratu ditugun pelikulen informazio orriak 3 izan dira (Plato's academy, Honeymoon eta 80 egunean). Bata grekoz eta ingelesez, bestea gazteleraz eta azkena biezez (euskaraz eta gazteleraz).

"Hilotzak hobitik ateratzen, duintasunak berreskuratuz" erakusketa eta honen hitzaldirako esku orria, bieletan dago euskarari lehentasuna emanez.

"Amnesty international"-ek argitaratutako esku orria ere, bieletan dago, euskarak lehentasuna duelarik.

80 egunean filmaren inguruan eskuratu dugun esku orria bieletan dago. Informazioa lehenik gazteleraz eta ondoren euskaraz irakurri daiteke.

Azkenik, Fnac-ek kaleratzen duen esku orriari dagokionez, bere programazioaren baitan, Giza Eskubideen Zinemaldiaren inguruko argazki erakusketaren inguruko informazioa agertzen da gaztelera hutsez.

4.6. WEB gunea

Web gunean, lehenik hizkuntza aukeratzeko pantaila agertzen da, euskara (Sartu), gaztelera (Entrar) eta ingelesa (Enter), aipatutako ordenan. Informazio guztia hiru hizkuntzetan eskuratzeko aukera ematen du.

Hemen ere aipatu behar dugu, Katalogo ofizialean eta programazio liburuxkan agertzen den informazio bera denez, akats berdinak errepikatzen direla.

4.7. Prentsarako materiala

Prentsaurrekoetan eta antolakuntzak emandako poltsan eskuratu izan dugun materiala bildu dugu. Prentsa txostena, eguneko programazio txostenak, filmi buruzko informazio txostenak, erakusketei buruzko informazio txostenak, prentsarako dossierra Cd-an eta zenbait iragarki besteak beste. Oro har, bi eletan edo hiru eletan zegoen informazioa. Aipatu beharra dugu Cd-aren kasuan izen guztiak gazteleraz bakarrik zeudela (euskarazko bertsioan ere bai, dossier general, largometrajes, Cara B...). Honetaz gain filmen azalpenak emateko txostenetan euskarazko bertsioan informazio gutxiago zegoen ("La perdida" filmak, ingelesez 8 orri, gazteleraz 10 eta euskaraz bakarra. "Los caminos de la memoria" k., 8 orri gazteleraz eta bakarra euskaraz. " El problema" filmak 3 orri

gazteleraz pdf formatuan eta orri erdia word-en euskaraz. Etab...). Argazkien karpeta ere izen guztiak gazteleraz soilik irakur zitezkeen.

Bestetik, posta elektroniko bidez bidalitako prentsa oharretan, informazioa euskaraz eta gazteleraz jaso zitekeen. Antolakuntzarekin zuzenean izan ditugun mezu trukaketetan ere euskaraz egin dugu.

4.8. Errotulazioa

Zine aretoetako edota erakusketa tokietako eta bulegoetako ateetan ipinitako ohar edo txartelak orokorrean bi eletan ikusi ditugu.

5. ERAKUSKETA

Giza Eskubideen Zinemaldiren inguruan egon diren zazpi erakusketa behatu ditugu.

- Okendo plazan "Erljioen mendean" erakusketako panel guztiak bieletan zeuden eta argazkien oinak ere bieletan.
- Udal liburutegi Nagusian "Gipuzkoa 1936-1950 kronika beltzean (eta zurian)" erakusketan panelak eta argazki oinak ere bieletan.
- Ernest Lluch Kultur etxean egondako erakusketa ere informazio guztia bieletan irakur zitekeen.
- Principe Zinemak Nigeriaren inguruko erakusketan panel informatiboak bieletan zeuden.
- La Colchoneria tabernan "Vindicación feminista" erakusketaren kartelak gazteleraz zeuden. 2 panel informatibo zeuden, bata, ezkerreko aldean gazteleraz eta bestea, eskubiko aldean euskaraz.
- Fnac-en egin zen argazki erakusketan informazio guztia gazteleraz bakarrik irakur zitekeen.

Oro har erakusketen informazioa bieletan bazegoen ere, Fnac-en kasuan, hutsunea egon zen.

6. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Orain arte azaldutako datuak aztertuz, atalez atal balorazio orokor bat egingo dugu jarraian.

Ahozkoan eta filmetan erabilitako hizkuntzari dagokionean 27 filmetatik bakarra izan da euskaraz (jatorrizko bertsioan) film luzeetan eta beste bat euskaraz azpidatzia. Film laburretan ez da euskarazko arrastorik ikusi eta haur eta gazteentzako saioetan aldiz, 3 film luzeetatik 2 euskaraz bikoiztuta eta bestea euskaraz azpidatzia izan da. Ikusten denez, lan handia dago egiteke euskaraz azpidatzitakoak edo euskaraz bikoiztutako filmeen kopurua handitzeko euskarak dagokion presentzia izan dezan.

Ekitaldi nagusietan, aurkezpenetan eta prentsaurrekoetan euskararen presentzia ez da izan behar bezain bestekoa. Inaugurazio eta klausura ekitaldietan euskararen presentzia handiagoa izan beharko litzateke eta ekitaldi hauetan proiektatzen diren filmetan euskara bermatu beharko litzatekeela uste du BAGERAK. Gainerako interbentzioetan ere euskararen presentzia areagotu beharko litzateke, (prentsaurrekoetan, kolokioetan...) gaztelera gailentzen delako. Prentsaurrekoetan gaztelera euskararen gainetik izan da nabarmen. Filmen aurkezpenetan elebitasuna nahiko orekatua izan da eta hori zoriontzeko da.

Idatzizko materialari dagokionez, elebitasuna mantendu arren badira zuzendu beharreko batzuk. Txostenean aipatu bezala katalogo ofizialean, programazio liburuxkan eta web orrian, azalpen testuak gaztelera izulpen literalak direla nabaria da eta askotan ulertezinak egiten dira esaldiak. Horretaz gain, akatsak ikusi ditugu euskarazko bertsioan (ume bat etsipenak jotako gizon bat topatu du, partehartzaile lituzketen, lortzen saiatzea, atzipetuta atxilotzea beharrean...).

Zinemaldiak kaleratzen dituen beste argitalpenenetan elebitasuna mantentzen da. Aipatu nahi dugu ere, Fnac-en kasuan, bertan egindako erakusketaren inguruko esku orrian informazio guztia gaztelera zegoela.

Azkenik, **erakusketei** dagokienean, 7 erakusketetatik 6tan mantendu da elebitasuna, beraz bakarra izan da gaztelera ("desde una ventana del edificio prestes maia 911", Fnac-en izandakoa).

Oro har, BAGERA Elkarteak positiboki baloratzen du, hala ere, hutsuneak badirela deritzogu, bai prentsaurreko, ekitaldi nagusi zein filmetan. Beraz BAGERAK ondokoa proposatzen dio Zinema Asteko antolakuntzari: dauden hutsuneak zuzentzea eta aurrerapausoak

sendo mantendu ditzan. Txostenean azaltzen den bezala hutsuneei konponbidea ezar diezaiela, Zinema Astean euskararen normalizazioa lortzeari begira. Bide horretan, BAGERAren esku dagoen heinean, laguntza behar izanez gero, beti prest edukiko gaituzue.